

BI MILA ETA HEMERETZIKO MAIATZAREN HAMAHIRUKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA.

Arrietan 2019ko ekainaren hamabian, 8:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu da udaletxeko Bilkura Aretoan, lehenengo deialdian, Antolamendu, funtzionamendu eta errejimen juridiko araubidearen 36.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Angel M^a Acillona Martinez alkate Jauna Udalburu dala, eta Udaleko kargua utziko duten zinegotziak dagozala, bi mila eta hemeretziako maiatzaren hamahiruko bilkuraren akta onartzeko asmoz.

Angel M^a Acillona Martinez jauna eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratu dira:

Aitzbea Yarto Goiri
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Gartzen Agirregoitia Abad

Edoitz Bilbao Aurre, Aintzane Enzunza Zorrozueta eta Haizea Bengoetxea Andikoetxeak aurretiaz azaldu du bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagoen aztergai bakarrari ekin jako.

I.- BI MILA ETA HEMERETZIKO MAIATZAREN HAMAHIRUKO EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2019ko maiatzaren hamahiruko ohiko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura bederatziak hoge gutxitan, akta hau idatziz, neuk, idazkari honek, fede emanaz.